

Herririk Herri | 4

Harrobiei tasa ekologikoa ezartzea aztertzen dabil Mañariko Udala



Berbaz | 8

F. Ruiz: "Formula berriak topatu behar dira etorkinak euskarara gerturatzeko"

Kultura | 11

Mikel Urdangarin: "Sekulako oparia izan dira azken hileetako zuzenekoak"

DURANGALDEA | 7

Greba ikastetxe eta udaletxe guztietan

Sektore publikoko murrizketen kontra atzo deitutako grebak erantzun zabala izan du durangaldean, sindikatuek jakinarazitako datuen arabera.



DURANGO | 2

Jesus Egigurenek emango dio hasiera aurtengo Berbertan zikloari

KIROLAK | 15

Durangaldeko II. Surf Jaialdia hartuko du bihar Plateruenak

Elorrio | 6

12 gazte-lokaletatik hirutan daukate su-itzalgailua

Durango | 2

Erralde hiltegiako beharginak erregulazio espedientean

Atxondo | 2

EAJk dioenez, 650.000 euroko defizita du Atxondoko udalak

Durangaldea | 7

Alfako langileak "mehatxupean" daudela dio LAB sindikatuak

BERRIZ | 2

Konpostatzeko lehenengo esperientzia Durangaldean

Zaborragaz konposta egiteko esperientzia martxoan ipiniko dute martxan Berrizen

'Berriziklatu' kanpainagaz, 50 familiak hartuko dute parte proiektuan



Berrizko udal ordezkariak teknikariekin eta Azterlaneko kideekin aurkeztu dute konpostatze-planta asteon.

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Mundu bat
nahi beste autera

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00

Irun OTSAILAK 23 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00



HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

Jesus Egigurenek
zabalduko du
Berbertan zikloa

Otsailaren 15ean Martxelo Otamendik Jesus Egiguren elkarrizketatuko du Plateruenean

Plateruena kafe antzokiak otsailean antolatzen duen elkarrizketa zikloa politikariek eskainiko die aurten. Lehenengo gonbidatua Jesus Egiguren PSE-EEko presidentea izango da. Otsailaren 15ean Martxelo Otamendik *Berria* egunkariako zuzendaria izango da Egiguren elkarrizketatuko duena.

Plateruenean zuzenean eta anboto.org-en streaming bidez jarraitu ahal izango dira antzokiko elkarrizketak

Hurrengo eguaztenean, otsailaren 22an, Josune Ariztondo kultur diputatuaren txanda izango da. Bingen Zubiria ETBko zuzendari ohiak gidatuko du jeltzalearen elkarrizketa.

Iñaki Soto *Gara* egunkariako zuzendariak, berriz, Fernando Barrena ezker abertzaleko kidea-ri egingo dion galdeketa izango da

Platerueneko zikloa itxiko duena, otsailaren 29an.

“Aurtengo zikloa politikariek egokitu zaie, baina ez politikaz berba egiteko bakarrik. Pertsonen mundu ikuskera eta pertsonaia-ren ibilbidea ezagutzea ere interesatzen zaigu”, azaldu du Beñat Gaztelu-Urrutia Plateruena kafe antzokiko arduradunak. Hala ere, elkarrizketa guztietan bi ideialantzeko asmoa dutela azaldu du Gaztelu-Urrutiak: “Batetik, azken hamarkadetakoa Euskal Herriko jendarte eta politikagintza-aren bilakaera aztertzea, eta, bestetik, datozen hamar urteetakoa irudikatzea”.

Streaming bidez zuzenean Berbertaneko elkarrizketak *anboto.org*-en zuzenean emitituko ditugu datozen eguaztentean, 20:00etatik aurrera. Beraz, Plateruenean elkarrizketak zuzenean ikustera gerturatzeko modurik ez daukatenek interneten ziklo osoa jarraitzeko aukera izango dute. ■ J.G.



PSOeko batzorde federala utzi berri du Egigurenek. Argazki Press

**Otsailaren 15ean,
20:00etan**

Martxelo Otamendik Jesus Egiguren

**Otsailaren 22an,
20:00etan**

Bingen Zubiriak Josune Ariztondo

**Otsailaren 29an,
20:00etan**

Iñaki Sotok Fernando Barrena

Erraldeko
beharginak
erregulazio
espedienteen

Enplegua Erregulatzeko Espedienteak jarri dute martxan Erralde hiltzearen. Mikel Ansotegi hiltzearen presidentea azaldu duenez, “langileen eta Administrazio Kontseiluaren adostasunagaz hartu da erabakia”.

Erregulazio espedienteak Durangoko hiltzearen berriro zabaldutako arteko neurria da, Ansotegiren berbertan. Ahalik eta arinen zabaldutako gura dute, baina horretarako Osasun Sailaren baime-na behar dute.

Plangintza osatzen

Erraldek kanpoko teknikari bat kontratatatu dute, hiltzearen berriro zabaltzeko Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituen hobekuntzekin plangintza osatu dezan. Plana Osasun Sailean aste bi barru aurkeztu gura dute.

Urtarrilaren 14an Erraldek Osasun Sailaren aginduz bere jardueraren bertan behera utzi zuenetik, langileek mantentzen dituen lanak egiten jardun dute. Langileek gainera, hiltzearen osatzen duten udaletako beharginen ere mantentzen dituzten lanetan jardun dute, eta “hobekuntzak” eginda daudela baieztatu du Ansotegik. ■ J.G.

181 isun Zumalakarregiko
oinezkoen gunean 2011n

PSE-EEK dio ez dagoela behar bezala seinalizatuta

Zumalakarregi kaleko oinezkoen gunean 2011 urtean 181 isun ipini ditu udaltzaingoak. PSE-EEK prentsa oharrean jakitera eman duenez, horietatik %61 ibilgailuak debekatutako lekuan aparkatzearen ipini dituzte. Lekua ez dagoela behar den moduan seinalizatuta kritikatu dute Durangoko sozialistek. Hainbat herritarren kezak gobernu taldeari jakinarazi arren, ez dutela ezer egin salatu

dute. “Gaur egun Sanagustinalden seinala bakarria dago, eta ez da ikusi ere egiten”, azaldu dute.

Pilar Ríos ordezkari sozialistaren esanetan, inguru hori emisio txikiko gunen izendatu zuten 2008an, asteburuetan oinezkoendako erabilerrara mugatuz: “Helburua gunen horretan herritarrendako ekintzak antolatzea zen, baina EAJk kontrako zentzuan dihardu”. ■ J.G.



Sanagustinalden seinala ipinita dago.

ATXONDO

EAJk dioenez,
650.000 euroko
defizita dago
udal kontuetan

Atxondoko EAJk beren beregi udalaren egoera ekonomikoa aztertuko duen Hazienda Batzordea deitzeko eskatu dio gobernu taldeari. EAJk prentsa ohar batean salatu duenez, 2011ko likidazioen datuetan erreparatuz gero, “500.000 euroko defizita dago, eta kopuru horri 2010eko gehituz gero 650.000 eurora heltzen da defizita”.

“Ausardiaz” jokatzeko deia Horren aurrean, “ausardiaz” jokatu behar dela adierazi dute, “ez gastuen murrizketaren bidean bakarrik, baita kontu publikoen errendimendu hobea segurtatzeko ere”.

Aurreratu dutenez, bestalde, “herriko komertzioa bultzatzeko eta kirol arloko zein kultur eremuko ekipamendu berrien gainera” proposamenak aurkezteko asmoa du Atxondoko alderdi jeltzaleak. ■ J.D.

Ikastetxea handitzeko
lanak Aste Santurako prest

Asteon fatxadako lanak amaitzen ibili dira.

Epearen barruan doaz Lehen Heziketa Ikastetxeko eraikin berriari dagozkion lanak. Ikastetxeko arduradunek adierazi dutenez, hiru solairuko eraikinaren “obra zibila Aste Santurako amaituko dutela esan dute langileek; modu horretara udan altzairuen lekualdatzea egingo genuke, irailean ikasturteari gune berriari ekiteko”.

Eraikin berriko gelen banaketa honako hau izango da. Behe-

ko solairuan bulegoak, lau gela, gimnasioa eta jantokia egongo dira; bigarrena irakasle zein ikasleentzako gelak, prestatzeko erabiliko dute; hirugarrenean 5. eta 6. mailako ikasleentzako gelak, informatika- eta musika-gelak eta liburutegia; baliteke liburutegian ingeleserako gela bat egitea ere.

Bitartean, asteon, fatxadako lanak amaitu dituzte eta gas hodi-terria ipini dute. ■ J.D.

BERRIZ

Konpostatzeko esperientzia pilotua, martxotik aurrera

50 familiaren parte-hartzea behar dutenez, promozioari ekin dio udalak

Hondakin organikoak konpostatzeko bidez birziklatzeko proiektua martxan ipini du udalak, esperientzia pilotu batez. Herritarrak informatuko dituzte datozen egunetan, *Berriziklatu* izeneko kanpainagaz, eta arduradunen asmoa 50 familia esperientzia atxikitzea da. Helburua "birziklapena laguntzea, zaborraren faktura murriztea eta auzotarrek euren zaborrari ingurugiroagaz begirunezkoa den etekin bat ateratzea" da, Roland Isoird alkateak azaldu duenez.

Durungaldean aitzindaria da Berriz egitasmo honegaz. Berrizburun egokitu dute konpostatzepianta-teilatua ipintzea falta zaio bakarrik-, eta proiektu osorako 66.000 euroko aurrekontua dute.

Otsailaren 21ean, 20:00etan, batzar zabala egingo dute arduradunek herritarrek

Otsailaren 21ean, 20:00etan, batzar zabala egingo dute arduradunek herritarrek

radunek herritarrei begira Kultur Etxean. Bertan, azalpen-bideo bat ere erakutsiko dute, Internet bidez ere zabalduko dutena. Herriko alderdi politiko guztietako ordezkariak zein bizilagunek parte hartu dute ikus-entzunezko horretan.

Inskripzio-epea

Eskuorriak eta inskripzio-fitxak banatuko dituzte, egitasmoragobidatuz, "herritarren partaidetza ezinbestekoa" dela ulertuta. Martxoaren 1a da izena emateko azkeneko eguna. ■ M.Onaindia.



Udal korporazioko kideek eman zituzten *Berriziklatu*-ren nondik norakoak.



Ibai Otadui, Lucia Unamunzaga eta Erika Garitaonandia

Berriziklatu proiektuko behargina eta ikerlariak

Zabor-poltsetan botatzen den %60 hondakin organikoa denez, sistema berriagaz 26.225 kilo inguru tratatzea itxaroten dute. Familiek edukiontzi bat jasoko dute, eta atez ate batu-

Kotxe elektrikoagaz eroango ditu hondakinak Berrizburura Otadui, "egunero edo egun birik behin, eta han nahasten joango dira materia marroia-adarrak, inausteak... eta materia begetalagaz".

Azterlan zentroko Lucia Unamunzaga eta Erika Gari-

taonandia arduratuko dira konpostaren kontrolaz. "Prozesu naturala" dela dio Garitaonandia, mikroorganismoak dituen aktore. Analitikak egingo dituzte: "Astean behin materia organikoaren karbono eta nitrogeno erlazioa, ph-a, tenperatura eta hezetasuna aztertuko ditugu". Gainera, "konduktibitatea edo metal astunak" ere ikertuko dituzte. Lau hilera amaituko da prozesua, eta konposta nekazaritza ekologikorako edo beste nekazaritza mota baterako sailkatuko dute. ■ M.O.

OTXANDIO

'Emakume langilea' gaitzat duen argazki lehiaketa abian

Giza Eskubideen Udal Batzordearen ekimenez, martxan dagoen argazki lehiaketak 'Emakume langilea' izango du gaitzat. Parte-hartzaile bakoitzak gehie- nez argazki bi aurkeztu ditzake, argazki paperean zein euskarri digitalean. Argazkiak aurkezteko azken eguna otsailaren 29a da.

Zumaiako talasoterapiari bi lagunentzako saioa da irabazlearentzako saria

Udalatxean aurkeztu beharreko gutunazalean argazki bakoitzaren esangura azaldu behar da, argazkigileen gaineko datuak gehitzeagaz batera. Lehiaketaren irabazleak Zumaiako talasoterapiari lagun birentzako saio bat izango du sari. Bigarrenak Otxandioko jatetxe batean dohainik afaldu ahaliko du. ■ J.D.

MALLABIA

Musika, pilota eta moztorro lehiaketa inauterietan

Egitarau zabala osatu dute Udalak eta Mallabiko kirol eta kultura elkarteek inauterietan. Bihar, 16:30ean, umeentzako jolasak eta txitxiburduntzia eskainiko ditu Guraso Elkarteak, ondoren Trabaku Goikoan txokolate-jana egingo dutelarik. Otsailaren 17an, berriz, Izar Gorri elkarteak herrian zehar moztorrotuta trikipotea egiteko deia egin du. Moztorrotzeko ipini duten gaia Apirilko Feria da.

Egun berean, baina iluntzeko 21:30ean, pilota partida erakargarria izango da: Mikel Goñi eta Olalde, Berasaluze IX.a eta Aldaperen kontra.

Otsailaren 21eko martitzen arratsaldean Lotxo taldearen musikak giroa du pilotalekua; ondoren, moztorro lehiaketa egingo dute. Lehiaketa adinaren arabera antolatu dute. Horrela, 12 urtetik gorakoek 200 eurora arteko sariak lor ditzakete. ■ J.D.

IURRETA

Alkateak ukatu egin du zabortegiagaz lotutako erreskusatzetintzidentea

Goiuriako Kofradiak eta Iñaki Totorikaguenak, bakoitzak bere probak aurkeztuko ditu orain

Iñaki Totorikaguena alkateak ukatu egin du Goiuriako Kofradiak tramitera aurkeztutako erreskusatzetintzidentea. Orain, alde bakoitzak dagozkion probak aurkeztu beharko ditu bere arrazonamenduari eusteko.

Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko jarduerarako eta obretarako lizentzia espedientetik alkatea baz-

tertzea eskatu du Goiuriako Kofradiak, "partziala" dela iritzita.

Bost egun baliaduneko epea Asteon izandako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrek alkateak erreskusatzeko intzidentea ukatzea; joan zen astean onartu zuten, aho batez, Goiuriako Kofradiaren eskaria tramitera onartzea.

Jakinarazpena jaso eta bost egun baliaduneko epea dute orain alde biek euren probak aurkeztu ahal izateko. Iurretako EAJk babes "sendoena" erakutsi dio Iñaki Totorikaguena alkateari; eskaria "zentsugabe" eta "arduragabetzat" jo du. ■ A.B.

Bost egun baliadun dituzte orain alde biek euren probak aurkeztu ahal izateko

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landaka etorbidean, 4 A.
- 48200 Durango. Telefonoa: 946030300

MAÑARIA

Harrobien jardunari tasa ekologikoa ezartzea aztergai

Udal gobernua aztertzen dabilen aukeretako bat da industria horiei "tasa ekologikoa ezartzea"

Urteetan herriak jasandako industria mota honen kalteak kontuan hartuta, harrobiei "tasa ekologikoa bat eskatzea" edo oraindino zehaztu barik daukaten bestelako ezarpenen bat ipintzeko asmoa dauka Bilduko gobernu taldeak.

Koalizio horrek hauteskundeetara aurkezturiko programan jasotako puntuetako bat da aipatutako hori. Endika Jaio Bilduko alkateak azaldu duenez, "oraindik legalki zer aukera leudekeen aztertzen dihardugu, eta ez dakigu zer forma hartuko duen ideiak". Neurriak ordenantza batean jasotzea izan liteke aukeretako bat, edota

Endika Jaio: "Legalki zer aukera leudekeen aztertzen dihardugu oraingoz"

araudi berezitu bat osatzea. Jaio alkateak, baina, ideia hori "zertan zehaztuko den jakitea gaitz" ikusten du: beste herri batzuetan ere saiatu direla, baina oztopo handiak daudela dio Jaio.

Eragindako kalte ekologikoa enpresa horiek beregain hartzeko neurriak ipintzea da Bilduko gobernu taldearen asmoa; "saiatuko gara norabide horretan lan egiten", dio Endika Jaio.

Aldaketak batzordeetan

Hirigintza eta ingurumen gaiak joratzeko batzorde berezitu bana eduki dute legegintzaldi honetan Mañariko Udalean. Bi gai horiek batzorde berean batzea eta batzorde berezitu berria sortzea proposatuko du Bilduko udal gobernuak gaur iluntzeko udalbatzarrean: Parte-hartzeari buruzko gaien batzordea litzateke berria. ■ I.E.



Bilduren programan jasota zegoen harrobiei buruzko gaia.

IZURTZA

Etxanoko ur biltegiko lanei ekiteko tramitea

Aste gutxi barru ekingo die Ur Partzuergoak Etxanoko ur biltegi hodi bat berrizteko lanei

"Etxanoko (Mañaria-Ermua) pon-paketaren xurgatze-biltegiko hutsutube berria" egiteko proiektuagaz aurrera dihardu Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak.

Alkateak azaldu duenez, hilabete inguru iraungo dute ur biltegi horretako lanek

Atzo burutu zuten obra aurre-erorategiaren beharrezkoa den akten sinatzea udaletxean: hiru herritarren eta udalaren lursailak okupatu aurreko aktak sinatu zituzten.

Herriko alkateak azaldu duenez, aste gutxi barru ekingo die Ur Partzuergoak lanei, eta hilabete inguruan jardungo dute Etxano auzoan beharrean.

Txixiburduntzia, domekan Udalak antolatutako otsailaren 12an herriko plazan burutuko duten Txixiburduntzi Eguna. Udalak ipiniko du edaria eta piztuko sua, eta hurreratzaren diren herritarrek eraman beharko dute janaria.

Beste urte batzuetan herriko ermitetan egin duten arren, plazan, 12:00etan, batuko dira aurretik, txixiburduntzi. ■ I.E.



2008an zabaldu zuten Haur Eskola, frontoiaren ondoan udalak atondutako lokalean.

Hamabi ume hartuko dituzte martxotik aurrera Haur Eskolan

Berez hamar umekoa da kuota, baina bi gehiago hartzea onartu dute

Aurrekoetan baino ume gehiago jaio da azken urteetan Mañarian, eta, besteak beste, 2008ko udaberrian zabaldu zuten Haur Eskolan ere isla zuzena dauka horrek: hamar ume hartzen dituzte Haur Eskolan orain, eta bi ume

Hezitzaile bi arduratzen dira, gaur egun, zero eta hiru urte bitarteko hamar umeetaz

berri gehiago ere onartu ditu datorren hiletik aurrerako Haur Eskolen Partzuergoak.

Mañariko Haur Eskolaren kuota hamar umekoa izan arren, izena eman duten bi ume berri horiek ere onartu ditu Haur Eskolen Partzuergoak; Endika Jaio Bilduko alkateak azaldu duenez, udalak hala eskatuta.

Hezitzaile bi arduratzen dira, zero eta hiru urte bitarteko hamar umeetaz —herrian eskolarik ez

dagoenez, bi urte arte barik, hiru arte egon daitezke Haur Eskolan—, eta 07:30etatik 16:00ak arte ematen dute zerbitzua. ■ I.E.

JAIOZAK

2011: 11 ume	2008: 10 ume
2010: 3 ume	2007: 3 ume
2009: 7 ume	2006: 6 ume

GARAI

Internetera konektatzeko proba-epea berriro

Garaiko Udalak internet zerbitzua proba-epean ipiniko du berriro, laster, Wi-fi sistemaren bidez. Azaroan ezarri zuten lehenengoz aukera hori, baina konexioagaz arazoak eduki zituzten herritarrek, eta konponketak egiten dihardute egunotan. Instalazioa Udaletxean eta Kultur Etxean egokitu dute, eta frontoikoak hobetzea falta da, azaldu dutenez.

Azaroan ezarri zuten lehenengoz, baina arazoak eduki zituzten herritarrek

Herrian internet zerbitzua eskaini gura du udalak, eta herritarren iritzia jakiteko zabalduko dute epe hau, konexioa librea delarik.

Interesdunen arabera, behin-betiko konexioa zelari barreiatu eta egokitu erabakiko dute. Abiadurari dagokionez, 256 kb-ko seinalea ailegatuko da, aurreratu dutenez. ■ J.G.

ZALDIBAR

Herriko berbetaren ikerketa interneten ipiniko dute ikusgai

Iñaki Gaminderen 'Zaldibar Berbarik berba' lana 2003an argitaratu zuten liburu eta CDan

Zaldibarko hizkeraren gaineko azterketak interneten ere eskuragarri egongo dira hemendik aurrera, udalak azaldu duenez. 2002an herriko berbeta jaso zuen Iñaki Gaminde hizkuntzalariak, berrogei zaldibartarren laguntzagaz. Berbaldi haiei eskerrak, "gure hizkuntzaren ondarea liburuan eta CDan argitaratu genuen 2003an", diote arduradunek.

Hamar urte igarota, interneten kontsultatu ahal izango da orain Iñaki Gaminderen orduko lana

Web gune berria erakutsiko dute, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, liburutegi zaharrean

Hamar urte igarota, interneten ikusi ahal izango da orduko lana; paperetik eta diskotik digitalizazioarako jauzia egingo du. "Lozorroan egon den lan horregaz gune bizia egin gura izan dugu, zaldibartarren berbeta legez, bizia", gaineratu dute.

Herritarrei egitasmoaren berri eman gura diete otsailaren 23ko aurkezpenean

Aurkezpenean

Herritarrei egitasmoaren berri eman gura diete, eta horretarako aurkezpenean egingo dute, otsailaren 23an, liburutegi zaharrean. Arratsaldeko 18:00etan hasiko den ekitaldian web gune berria erakutsiko dute, iragarri dutenez. Bertan parte hartzeko gonbidapena egin du udalak. ■ M.O.

ERROTARITXUENA DURANGO

2 logelako etxebizitza

194.000 € -tik
aurrera
+ BEZ



Datorren urte amaieran
zure etxebizitza emango dizugu

Bermatuta!

%100 arte finantzatutako erosketa:

Sabadell Guipuzcoano



FINANTZAZIO BALDINTZA APARTAK



Eraikitzen ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D.an eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazio guztia interesatuen esku dago gure merkataritza-bulegoetan.

www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

ELORRIO

Kanpoko igerilekuen azterketa egin dute, polemika areagotuz

Alkatearen erabakiz garatu dute azterketa; Bilduk "isilpean jardutea" leporatu dio EAJri

Kanpoko igerilekuak egitea bide-ragarria ote den ikertzeko lan teknikoa egin dute. Elizalde inguruko hiru eremu aztertuta, ikerketak dio hiruretan egin daitekeela igerilekua; piztina ez eze, gune berdeak eta aparkalekua ere batzen ditu proiektuak. Txostenaren arabera, 2,2 milioi euro beharko lirake egitasmoa burura eroateko.

Ikerketak dio aztertutako hiru eremuetan dagoela igerilekuak egiteko aukera

EAJk lehenago, urrian, kreditu-aldaketa legeaz aurkeztu zuen azterketa-proiektua. Aisialdirako eskaintzaren baitan ikusten ditu igerilekuak, eta Bilduk kirol-instalazioen hausnarketa orokorra

beharrezko litzatekela dio. EAJko zinegotzi biez ziren udalbatzarrean egon, eta Bilduk kontra bozkatu zuen; ez zen aurrera atera proposamena. Jeltzaleek "gobernu taldearen ekimenak galaraztea" egotzi zioten koalizioari. Bilduk salatu du, "gertatutakoa ikusita" jeltzaleek "euren kontrako trikimailua" erabili dutela, "ardura euri botatzeko". Koalizioak dioenez, "EAJk bazekien gure posizioaren berri", eta orain udalbatzarrera ekarrita "isilpean aritzea" leporatu dio.

EAJk dio ez dela "zalantza jartzekoa" eurek eginda lana. Euren ustez, egon da denbora gauzak eztabaidatzeko eta aurrerantzean ere hitz egiteko gertu azaldu dira. Bildurentzat, jazotakoak bi alderdien arteko konfiantzan "atzerapausoa" suposatzen du. ■ M.O.

Suteen prebentziorako programa biipini ditu martxan udalak, 37.050 eurogaz, gazte eta nagusiei begira. Gazte-lokalei zuzendutako programan, ke-detektagailuak eta su-itxalgailuak doan ipiniko dituzte. Aurreko astean gazte-lokalak ikuskatu zituzten teknikariek, eraikin horiek udal araudia betetzen ote duten aztertzeko. 12 lokaletatik bakarrik zeukan sute-alarma eta hiruk su-itxalgailua. Egoera hori ikusita, lokaletan bi neurriak egokitzea erabaki dute, Ana Otadui alkateak adierazi duenez.

Nagusien etxeen kasuan, kea sortzean alarma bidez abisua emango duen gailua egokitzea proposatu dute. Ez da derrigorrezko neurria, baina doan eskuratu ahaliko dute 80 urtetik gorakoek etxeetan, bakarrik edo 75 urtetik gorako lagunagaz bizi badira. Asteon gutuna bidali du udalak ezaugarri horien baitan dauden 350 etxeetara, proposamenaren zehaztasunak azalduz. Gero teknikari batek deituko du etxera, hitzordua zehazteko.

Detektagailuak bateriagaz funtzionatzen du, eta ez du obrarik behar. Teknikariek, bestalde, larrialdi egoeran jarraitu beharrek urratsen krokis bat diseinatu

Ikertutako 12 lonjetatik hirutan daukate su-itxalgailua

Gazte-lokalei eta nagusien etxebizitzetara begirako prebentzio neurriak aurkeztu dituzte udalean



Otadui, lanen ardura duen Atiempo enpresako Jon Ensunzagaz.

ABADIÑO

Idi-probak, pilota finalak eta bildots txapelketa

Joan zen barikuko azoka egunaren ondoren ere, hainbat hitzordu dauzkagu oraindino Sanblasetan



Bisitari ugari hurreratu zen joan zen barikuan, azokara. Z. Fuertes

Ehunka lagun batu ziren otsailaren 3an San Blas Azoka gozatzera, eta datozen egunotan ere jende asko batuko da jai egitarauak jasotzen dituen ekitaldietara. Idi-probak, pilota txapelketako finalak eta burduntziko bildots txapelketa eta bazkaria dira etortzeko daudenak. Otsailaren 12an 11:00etan jokatuko dituzte pilotariak finalak, eta 13an banatuko dituzte idi-pro-

betako sariak. Otsailaren 18an batuko dira burduntziko bildots txapelketarako eta bazkaritarako.

Harri-jasotze errekorra

Euren seigarren errekorra ezarri zuten joan zen barikuan, San Blas-etan, Izeta II. eta IV.ak, 125 kiloko harri laukizuzenagaz. Magunazelaia gazteak ere bere marka pertsonal berria ezarri zuen. ■ I.E.

Zarrabeitiaren eskubideen aldeko martxa Poitiersera

Eneko Zarrabeitia abadiñarra preso dagoen Frantziako Poitiers-Vivonne espetxera martxa antolatu du Herrera ekimenak, otsailaren 11rako.

"Kide baten senideei eupada egiteagatik" Zarrabeitia euskal presoari ezarri dioten bi hilabeteko zigorra "berehala bertan behera utzi" deatzela aldarrikatuko dute otsailaren 11ko martxan parte hartuko dutenek.

"Kide baten senideei eupada egiteagatik" ezarri zioten zigorra bertan behera utzi deatzela aldarrikatuko dute

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, "kartzelan egunerokotasuna berez da gogorra, baina bizi baldintzak gogortzea jasangaitza delako" burutuko dute martxa hori.

Gaur goizaldeko 00:00etan aterako da autobusa, eta bihar goizean, Eneko Zarrabeitia preso degoen Poitiers-Vivonne espetxeraino joango dira. ■ I.E.

Ludoteka, Berbaro elkarteak kudeatuta

Lehen hezkuntzako lehenengo mailako 29 eskola-ume batuko dira, otsailaren 11tik ekainaren 16ra arte udalak antolatu duen eta Berbaro elkarteak kudeatuko duen ludotekan.

Udaleko Hezkuntza eta Euskara Batzordeburu Argi Abadek adierazi duenez, Berbaro elkarteak diseinatu eta koordinatutako jolas eta tailerren programa horren barruan 15 saio daude aurreikusita; larunbatetan, goizeko 10:00etatik 12:00etara.

"Aisialdia euskaraz gozatze-ko aukera eskaintzeko", papiroflexia eta sukaldaritza tailerrak, kirola eta antzezlan baten muntaketa burutuko dute, Errota kultur etxeko saioetan. ■ I.E.

Hamabost saiotan "aisialdia euskaraz gozatzeko" hainbat jarduera burutuko dituzte

Abadiñoko 29 eskola-ume, udalak antolatu eta Berbarok kudeaturiko ludotekan

Irakurketa eta sorkuntza tailerra, Peru Magdalenagaz

Abadiñoko LHko bosgarren eta seigarren mailako 26 gaztetxok hartuko dute udalak bigarren urtez antolatu duen tailerrean. Asteon abiatu dute tailerra, eta ekainera arte batuko dira "ikasleak euskarazko irakurketaren mundura era atsegin eta jostagarrian hurbiltzea" helburu duen tailerrarako izena eman dutenak. Peru Magdalena idazle eta bertsolari durangarrak gidatuko ditu ikastaroaren saioak.

Hainbat generotako testuak irakurri eta horiek lantzeko euren lanak sortuko dituzte

Hainbat generotako testuak irakurri, eta horiek lantzeko komikiak, idazlanak eta bestelako lanak sortuko dituzte ikasleek.

Hilean behin, Traña-Matienako Errota kultur etxean —astelehenetan— eta Zelaietako udal mediatekan —eguztenetan— elkartuko dira irakurketa eta sorkuntza tailerrarako izena eman duten gazte abadiñarrak. ■ I.E.



Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO



Durangaldean labur

Bizikletak erosteko laguntza hilabeteen agortuta Durangon

Durangoko Udalak hiri-bizikletak erosteko bideratutako 6.000 euroko diru-laguntza hile bat baino lehenago amaitu da. Guztira, 61 laguni eman diete laguntza eta horietatik %90i 100 euroko laguntza onartu diote. Eskari guztien %13 (zortzi bizikleta, guztira) bizikleta elektrikoak erosteko izan da. Udal ordezkarien arabera, Durangoko lau bizikleta saltokietan egindako inbersioa 32.021 eurokoa izan da.

Baserri bat erre egin da Berrizko Errotatxo auzoan

Eguazten arratsaldean sute bat sortu zen Berrizko Errotatxo auzoko baserri batean. Su-hiltzaileen hainbat kamioi gerturatu behar izan ziren bertara, eta ordu bitik gora behar izan zuten sua kontrolatu eta itzaltzeko. Udaltzaingoa eta Ertzaintza ere bertaratu ziren bestelako kudeaketa lanak bideratzeko. Sutearen ondorioz ez zen zauriturik gertatu.



Bertso saioagaz txarriboda Elorrión

Txarriboda dute asteburuan Portalekuan. Zapatuan Alkartun bertso afaritarako batuko dira, 21:00etan. Maialen Lujanbio, Arkaitz Estiballes eta Miren Amurizak onartu dute afaritarako gonbita. Domeka eguerdian odoloste-dastaketa prestatuko dute Portalekua tabernan.

DURANGALDEA

Ikastetxe eta udaletxe guztiek egin dute bat grebagaz

Sektore publikoko murrizketen kontrako lanuzteak erantzun zabala izan du

Irakaskuntzan, administrazio publikoan eta osasun zentroetan erantzun zabala izan du atzorako deitutako lanuzteak Durangaldean. Murrizketen kontra, *Kalitatezko zerbitzu publikoen alde* lemapean egin dute greba deialdia ELA, LAB eta EILAS sindikatuek.

Eskualdean, udaletxe guztietan egin dute bat greba deialdiagaz. Elorrioko Udalean eta Amankomunazgoan langileen %50ek baino gehiagok egin du greba, ELAren datuen arabera. Beste udaletxeetan lanuzteak %90eko babesa baino handiagoa izan du.

Ikastetxe askotan ere igarri da greba. Beharginak Bilboko manifestaziora deituta egon dira, eta Iurretan, esaterako, elkarretaratzea egin dute Maiztegi eta Juan Orobio goitia ikastetxeko langileek, *Hezkuntzan murrizketarik ez* lemapean. Pankarta beste bate-rako gorde beharko dutela aipatzen zuten langileek: "Ez da azken protesta izango". Ikastetxe publikoek ez eze, beste zentro batzuek ere egin dute bat grebagaz; Elorrioko eta Durangoko ikastolek, esaterako.

'Kalitatezko zerbitzu publikoen alde' lemapean egin dira mobilizazioak

Udaletxe gehienetan langileen %90ek baino gehiagok egin du lanuztea, ELAren datuen arabera

Osasun zentroetan zerbitzu minimoak eskaini dituzte, eta garraio publikoan, Euskotreneko langileek greba egin dute. Sindikatuen arabera, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban 100.000 langilek egin dute lanuztea ■ A. Ugalde.



Iurretako ikastetxeetako langileek hainbat gurasoren babesa jaso dute elkarretaratzean.

Alfako beharginak "mehatxatuta" daudela dio LABek

Enpresa taldeko egoera ekonomikoa ez da ona



Alfa Dinaloteko beharginen protesta, 2009an, Durangon. I. Gorriti

LAB sindikatuak jakitera eman du Alfa enpresa taldearen egoera ekonomikoa ez dela ona, eta Abadiño, Berriz eta Mallabian enpresak izanik -Dinalot, Mafisa eta Mecánicas Mallabi, hurrenez hurren-, kezka agertu du jazo daitekeenagatik. Izan ere, Eibar inguruan dauzkana enpresetako beharginek "mehatxua" jaso dutela dio sindikatuak, soldataren %10eko jai-

tsiera edo kaleratzeak planteatuz. Eibarko langileek zapatu honetarako manifestazioa deitu dute 12:00etan, eta bertara joateko deia egin du Durangaldeko LABek.

Duela hilabete jaso zuten Alfaren egoeraren berri, "diru-arazoak" dituztela esanez. LABek dio "galerak baino, arduratzekoak egindako inbertsioekin dituzten zorrak" direla. "Momentuko eta presazko erabakiekin ez da arazoa konponduko", dio. Beharginen eskubideak errespetatuko dituen etorkizuneko plan bat eskatu dute. Datozen egunetarako Durangaldean mobilizazioak iragarri ditu LABek. ■ M.O.

Datozen egunetarako mobilizazioak iragarri ditu LABek Durangaldean

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

(AZ) KOMUNIKAZIOA

DISEINU GRAFIKOA
ETA WEB DISEINUA

LOGOTIPOAK KATALOGOAK EGUTEGIAK FLYER
STAND GONBIDAPENAK ROLLUP KAMISETAK
KARTELAK ALDIZKARIAK ONLINE DENDAK
ENPRESAREN WEBGUNE INFORMAZIO BLOGAK
AZOKA ERAKUSKETEN DISEINUA

DEITU KONPROMISO BARIKIII

(i) Tel.: 681 305 831 azkomunikazioa@gmail.com

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateylexpe.com

Elorrión ere aukera onak

BERBAZ>

“Euskarara hurreratu gura duenari bidea errazteko lanean hankamotz gabiltza”

Etorkinek euskalduntzean sakontzea gaitza da Ruizen ustez: “Euren lehentasuna lana da, eta lan mundua elebakarra da”

Euskararen bidez etorkinei harrera egitea da AISA ikastaroen helburua. Eusko Jaurilaritza eta HABEren elkarlanetik sortutako egitasmoak zortzi urte daramatza martxan. Eskualdean hainbat saio egin dira ordutik, eta duela gutxi Zal-dibarren ipini dute abian. Durangon udalak 2005etik urtero antolatatu ditu ikastaroak. Etorkinak euskarara hurreratzeko ahalegi-nei buruz egon gara berbetan Fernan Ruiz Barbaroko eta Durangoko Udaleko Euskara zerbitzuko lankideagaz.

Zelakoak dira AISako ikastaroak?

Etorkinei euskara aurkezteko ikastaroak dira; hona datozenean badakite hemen gaztelera berba egiten dela, baina badaukagu gure hizkuntza, eta aurkeztu egin gura diegu. HABEk prestatutako materialean, Euskal Herriari buruz eta bere administrazioei buruz berba egiten zaie... Irudi bidezko hiztegia ere badago, eta orduak, norbere burua aurkezteko moduak, zenbakiak eta hizkuntza bat ikasten hasten garenean ikasten ditugun oinarritzko esaldiak irakasten zaizkie 60 orduko ikastaroan.

Zerk bultzatzen ditu etorkinak euskarara?


Perfil askotako etorkinak daude, eta motibazioak ere denetarikoa dira: batzuk gurasoak dira eta seme-alabak euskaraz ikasten dutenez, ikusten dute euskara hor dagoela eta umeei eskolan behar dutela. Horregatik etortzen dira informazio bila. Baina normalean, gehienak lan barik dauden etorkinak izaten dira, gizon-ekoak. Euskara badela badakite, eta askotan ahoz ahokoaren bidez heltzen dira ikastaroetara.

Ikastaroek harrera ona daukate?

Durangon beti osatu izan dira bi-hiru talde. Baina ez dute izena ematen duten guztiek amaitzen; urteotan ia 300 pertsonak eman du izena. Ikastaroa hasi dutenak gutxiago dira: 201. Eta guztiek ez dute amaitzen: 111k amaitu dute.

Konstantzia falta da, beraz.

Euren lehentasuna, eta ez euren bakarrik, denona, beharra edukitzea da, bizi ahal izateko. Ikusten badute euskara ikasita beharra topatzea errazagoa dela, ikasiko dute. Adibidez, Lea-Artibain lan mundurako behar dutela ikusten dute, eta ikasten dute. Hemen, zoritxarrez, eroso samar bizi daiteke euskara jakin barik; lan mundua elebakarra izan



“Etorkinen egoera oso desegonkorra da; gaur Durangon daude, baina lana eskaintzen badiete bihar-etzi Bartzelonan egon daitezke”

ohi da. Konstantzia dela-eta, pasatu izan zait ikastaroan izena emandakoei astebete lehenago deitzea, eta eurek Durangon barik Castellonen, Galizian... lanean dabilzala esatea. Euren egoera ez da egonkorra; gaur Durangon daude, baina lana eskaintzen badiete, bihar-etzi Bartzelonan egon daitezke.

Euskalduntzean sakontzea gaitza da.

Bai, eta ez diot eurek gogorik ez dutelako denik hori; guk dauzkagu arazoak, ez dugu asmatzen jarraipen hori zelan bideratu. Formula berriak topatu behar dira. Udalak beste egitasmo bat dauka, Hitz Egidazu izeneko; Berbalagun lakoa da, baina

bikoteka egiten da. Iaz gaztelania ikasteko bakarrik eskaini zen, eta aurtun euskaraz edo gaztelera egiteko aukera dago. Bolondresen zerrenda dago mintzapraktika egiteko. Bestalde, egon zen aurrera irten ez zuen ideia bat ere, tutoretza lakoategaz lan egiteko. Azken finean, AISA ikastaroak data zehatz batzuetan ematen dira, eta apirilean informazio eske badatoz urrira arte itxaron behar dutela esatea... ez gara gai berehalako erantzun bat emateko. Euskaltegietan ordutegiategaz autoikaskuntzarako laguntza ematea pentsatu genuen, baina egitasmo hori ez zen aurrera irten. Buelta gehiago eman behar zaizkio gaiari.

Fernan Ruiz •

- Barbaroko lankidea
- Durangoko Udalaren Euskara Zerbitzuan egiten du beharra

“Hemen gaztelera egiten dela badakite; euskara aurkeztu gura diegu”

Euskara errefortzuak behar dituzten eskola-umeei ere laguntzen diezue Barbaroren bidez.

Eskoletako eskariari erantzuteko ematen dira errefortzu horiek. Udalak Barbarori eman dio programa horren ardura, eta hiru hezitzaile dabilzta lanean; batez ere, etxerako lanak egiten laguntzen. Hasieran ludoteka baten antzeko funtzionamendua zeukan egitasmoak, baina ikastetxeetako arduradunek etxerako lanetan laguntzeko premia nabarmendu dute. Funtzionatzen duen egitasmoa da; gaur egun 120 eskola-ume inguru dabilzta.

“Gaur egun 120 eskola-ume dabilzta euskarazko errefortzu programan”

Zer dago euskaldunon esku?

Askotan gertatzen da euskarara hurreratu gura duenak ez duela jakiten zelan egin. Guk bidea erraztu beharko genuke, baina ez dugu zelan zabaldu jakiten. Etorkinen uholde hau 2000ko hamarkadan hasi zen. Desberdina da, baina gerra ostean hemen egon ziren etorkinak, Espainiako eskualdeetatik etorrira. Haiek ere afrikarrak eta hegoamerikarrak gaur egun etortzen diren antzera etortzen ziren: beharra egitea zen euren lehentasuna. Lehen ez genuen lortu euskarara hurreratzeko, eta gaur egun baliabide askoz hobeak eta gehiago dauzkagu, eta euskarak arlo askotan aurrerapenak egin ditu, baina ez gara gai jendea guregana hurreratzeko. Arlo horretan, oraindik hankamotz gabiltza. ■ A.Ugalde



aisia LEKEITIO
H ★ ★ ★

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g

48280 Lekeitio

Tel.: 94 684 26 55

Fax: 94 624 35 00

lekeitio@aisiahoteles.com

lekeitiorestaurant@aisiahoteles.com

www.aisiahoteles.com



AURTEN AISIA LEKEITIO HOTELEAN EZKONTZEN BAZARA, OPARI BEZALA:

- Autobusa doan zure gonbidatuentzat
- 2 ordu DJ-agaz
- Afari ostekoa edo txokolatezko iturria barra librean
- Deskontu garrantzitsuak argazki erreportajea
www.argazkijulen.com
(zuen ezkontzarako doako gonbidapenak barne)
- Suite Junior motako logela eztei-gauerako
(edo bono baliokidea) + "Jarri Galant" pakete termala




BALDINTZA HAUEK GUTXIENEZ 100 GONBIDATUKO EZKONTZETARAKO DIRA, GONBIDATU GUTXIAGOREKIN, GALDETU HOTELEAN MANTENDUKO LIRATEKEEN BALDINTZEI ETA OPARIEI BURUZ



AISIA LEKEITIO HOTELEAN BONO RELAX EDO BONO GASTRONOMIKOA ZOZKETAN

Abadiño San Blasetan nortzuk egoten dira bentanetan mutil zaharrak engainetan?



BIALDU ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixemte Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta hlebidera

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Paul Abasolori emandako indultua, emakume guztion kontrako bortxaketa!

Nola da posible emakumeen aurkako indarkeria-
ren kontra agertzen den erakunde batek indultu
hau eman izana?

Diskurtso eta praktikaren arteko inkoheren-
tziak ez dira nobedade horrelako espazioetan, bai-
na gertakari hau inkoherentzia bat baino askoz
gehiago da. Indultu hau, emakume guztion kon-
trako eraso bat da; Paul Abasolok eraso egin zien
emakumeen kontrakoa, eta beste guztion kontra-
koa ere bai. Izan ere, kasu honek aurrekari bat sor-
tu du. Erasoen inguruko permisibitate sinboliko
bat marraztu du.

Horregatik, jendarteari dei egiten diogu kasu
honen inguruan hausnartzeko. Isolaturik ematen
den egoera bat bezala ikusi beharrean, estruktu-
ra patriarkalaren ondorio baten modura ulertze-
ko. Ondorioz, estrukturatik eraldatu behar den ego-
era baten aurrean gaude berriro ere.

Bilgune Feministak gonbidatzen ditu emaku-
me guztiak autodefentsa feministaren diskurtso
eta praktikan murgiltzera. Biktima bihurtzen gai-
tuen sistemari iseka eginez, gure buruen jabe izan
gaitezen!

Erasoen aurrean, emakumeok autodefentsa
feminista!

Durangoko Bilgune Feminista

Klik batean @



Konponduko ote dute azkenean?

Azken asteetan Berrizko Eituako gasolindegien arteko errepide zati
honetan obretan dabilzala ikusita, azken urteetan gidari askori sus-
to bat baino gehiago eragin dizkion errepide zatia konpontzeko eska-
tuz argazkia bidali du herritar batek. "Urteak dira euri asko egiten
duenean putzua eta hotz handia egiten duenean izotza sortzen dela
errepideko leku berean", dio herritarrek. "Orain arte, gidarien segur-
tasunaren alde egin duten guztia pibote bi ipintzea izan da", dio.

Sei hankako mahaia

Kalera!



Dani Maeztu
Aralar

Enpresario indartsuen lobbya
pozik egongo da. 2009an lanpos-
tuen galera gelditzeko aitzakiare-
kin, alderdi sasi-sozialistak inda-
rrean sartu zuen lan erreformaren
gainean erreforma berria jarriko
du Espainiako Alderdi Popularrak;
aitzakia berarekin. 2009tik hona,
18.900 langabetu gehiago dago
EAEn. Beraz, agerikoa da herrita-
rrei emandako aitzakiak ez duela
balio. Erreforma enpresario indar-
tsuen poltsikoak berotzen jarrai-
tzeko egingo dela dirudi.

Gai ekonomikoen inguruko
adituri ez dagoela ere agerian
geratu da krisi sozioekonomiko
honetan. Hala ere, gehienak ados
daude diagnostikoa egiterakoan:
merkatuaren erregulazio ezak eta
banketxe batzuen espekulazioak
ekarri gaituzte egoera honetara.

Hamaika arrazoi daude bihar kalera ateratzeko; manifestazioa deitu dugu aski dela esateko

Gauzak horrela, 2010ean San-
tanderrek 8.180 milioi euroko ira-
baziak izan ditu; BBVAK 4.606; La
Caixa 1.307; eta zerranda luzea-
goa da. Eta gobernuek, banke-
txeen osasuna zaintzeaz gain,
herritarrena okertzeko lan egiten
dute: sektore publikoko langileen
eskubideak murrizten dituzte;
pentsioak izozten dituzte; zerbi-
tzu publikoak pribatizatuz doaz...
Horixe da paradoxa! Krisia sortu
dutenek irabaziekin jarraitzen
dute, eta krisia pairatzen dutenek
galerei aurre egiteko zailtasunak
dituzte.

Hamaika arrazoi daude bihar
kalera ateratzeko; bakoitzak bereak
izango ditu, nik neureak bota ditut.
Bilduko alderdiek eta Aralarrek
manifestaldira deitu dugu aski
dela esateko, eta gonbita luzatzen
dizuet mobilizazioetan parte har-
tzeko; bai biharko manifestaldian
bai 25ean sindikatuak eta eragile
sozialek deitu dutenean. Kapita-
laren agenda hustu eta gurea bete
egin behar dugu, aldarrikapen eta
mobilizazioekin! Eta ahaztu gabe,
bestelako eredu bat posible dela.

Mugagabeko garapena gura
duen eredutik harago badago alter-
natibarik!

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten
izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak
jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko otsailaren 10a
10. urtea - 446 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa
Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokultura

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Saiatuko naiz kanta berriren bat besapean ekartzen Durangora”

Azaroan aurkeztu zuen ‘Zuzenean 2010/12/30’ diskoko kantak eta “beharbada kanta berriren bat” ere eskaniko du **Mikel Urdangarinek** otsailaren 17an Durangoko Plateruenean eskainiko duen zuzenekoan

Urte hasierarako hainbat kontzertu dauzazu lotuta. Bira emankorra doa...

Badaukagu lan apur bat, bai. Lehenengo hiru hileetakoa, behintzat, polito jarri zaiugu. Gaur egun—egia esan, musikaren munduan beti da horrela—epe motzean bizi gara, eta urte hasiera honetan gutxienez lana badaukagu, eta hori ez da gutxi.

Zelan joan dira orainartekoak?

Aspaldiko kontzerturik beroenak bizi izan ditugu. Esaterako, Donostiako Victoria Eugenia eta Bilboko Kafe Antzokian emandakoen oroitzapen benetan ona daukat. *Zuzenean 2010/12/30* diskoaren birako hamabost kontzertuekin oso pozik gaude.

‘Zuzenean 2010/12/30’ diskoa ez eze, ‘Nora’ proiektua ere zuzenean eskaintzen ere badiharduzu azkenaldian.

Bai. Orain bi urte aurkeztu genuen *Nora* proiektua: Traspasos dantza taldeagaz sortutako ikuskizuna da, dantza garaikidea eta

kantak lotzen dituen. Bost-sei kontzertu dauzkagu ekainera arte lotuta.

Durangon ‘Zuzenean 2010/12/30’ disko horren aurkezpena da egingo duzue?

Orain arte Donostian eta Bilbon egin dugun moduan, disko horretan oinarrituta eskainiko dugu zuzeneko. Dena den, *Zuzenean 2010/12/30* disko horretako kantez gainera, beharbada, kanta berriren bat eskaini ahaliko dugu. Izan ere, konposatzen, sortzen jarraitzen dugu. Zabalik egongo den zer edo zer izango da kontzertua; ez zehatz-zehatz disko bikoitz horren aurkezpena.

Azkeneko hileetan sorturiko kantaren bat ere joko duzue Plateruenean, beraz.

Bai (barrez)... Ez dakit ailegatuko naizen, baina saiatuko naiz Durangora kanta berriren bat besapean dudala etortzen. Disko bikoitza da *Zuzenean 2010/12/30*, kanta asko daude hor: aukeraketaren bat egin beharko dugu... Zer joko dugun, baina, ez da gauza oso zehatza izaten nire kasuan: beti egoten da aldaketaren bat edo beste erreperorioan. Aspaldiko kanta zaharrak, ez hain zaharrak, eta beharbada berriren bat izango dira kontzertuaren oinarria.

Zelan doa sorkuntzaren alor hori?

Urtebete edo gehitxoago daramat kanta berriekin ere, baina isilpean; bakarkako



“Aspaldiko beroenak izan dira bira honetako azken hilabeteetako kontzertuak”

“Badaukat kanta-sorta bat eskuartean, eguneroko lan lasaian jorratzen dihardudana”

moduan, etxeko lanean. Badaukat kanta-sorta bat eskuartean, eguneroko lan lasaian jorratzen dihardudana. Denborak aurrera egin ahala erritmoak azkartzen joango naiz, baina oraingoz beste batzuk dira dauzkan ardurak: *Zuzenean 2010/12/30* aurkeztea, batetik, eta *Nora* ikuskizunari amaiera ona ematea, bestetik. Kanta berriei dago-kienez, ikusiko dugu udaberri-uda zelan datorren, eta zer abiadura ematen diodan sortze-lan horri.

Zelakoak datoz, zer ezaugarri daukate kanta berri horiek?

Berri diren ilusio horregaz datoz kanta horiek: bizi-bizi eta fresko daukazazu, eta azaltzen zaila den indar berezi bat, ilusio berezia sortzen dizute. Baina, kantak egin berri edo oraindino egiteko dauden denbora tarte horretan, puntu oso gaseosoan, aldakor dagoz oraingoz. Neure intimitatean, etxean, gitarra eta ahotsagaz sortutako kantak dira oraindino; gerora zelan jantziko ditudan, zer forma hartuko duten ez dakit.

Zer taldekidek lagunduta zatoz Platerueneko kontzertura?

Aspaldiko taldekideekin nator: bederatzi urteetan ondoan dauzkadan Bingen Medizabalegaz, zazpi sokako biolinean, eta Rafa Ruedagaz, gitarra elektrikoan, batetik, eta azkeneko zazpi urteetan finkatu dugun bandagaz nator: Koldo Uriarte teklatueta, Nika Bitchasvilli biolinean eta Saihela Gazmaier baterian. Azkeneko zazpi-zortzi urteetan elkarregaz dihardugu, bidelagun fidelak, lagunak ditut, zuzenekoetarako ezin besteko piezak dira. ■ I. Esteban

Azaroan aurkeztu zuen 2010eko abenduaren 30ean Bilboko Kafe Antzokian grabatutako kontzertuko doinuak biltzen dituen diskoa Mikel Urdangarinek. Bertan, “hamabost urte kantatzen daramadan abestiak daude”, azaldu du Urdangarinek: “*Haitzetan* lehenengo disko hartako kanta batzuk oraindino ere kantatzen ditut: oso gogo biziz, gainera, oso bizirik daudelako nigan”. Diskoan bildutako beste hainbat kantez, baina, eraldaketa jasan dute: “Jatorrizko haien berrinterpretazioak dira; beste ikuspegi batekoak”.

“Sekulako opariak izan dira azkeneko kontzertuak”, dio zornotzarrek, lehenengo kantatik azkenekora arte babes handia sumatu dute zuzenean: “Aspaldi bizi bako giro beroa gozatu dugu azkeneko kontzertu horietan”.

Dagoenik eta gauzarik handiena da Mikel Urdangarinentzat hori: “Gure eta publikoaren artean dagoen zubi ikusezin hori sortu dela ikustea, kanta batzuek jendearengan eragina izan dutela ikustea sekulakoa da, jende batentzat kanta horiek

“Sekulako opariak izan dira azkeneko hileetako kontzertuak”

zeozer esan gura dutela ikustea baino handiagoz ez dago niretzako musikan”.

Azken lau-bost urteetan taula gainean inoizko gehien gozatzen dabilela ere kon-

tatu digu Urdangarinek. Inghaterrara doa martxoan: Liverpool eta Birminghamen, Kirmen Uribek eta biek kontzertu erreztaldia eskainiko dute hiri bi horietan.



MUSIKA > EMANALDIA

Durangoko Musika Eskolako 14 ikaslek gazte eta ikasle oskestretan joko dute

Euskadiko Ikasleen Orkestran jarduteko hautatu dituzte sei, eta Gazte Orkestrarako zortzi

Bartolome Ertzilla Musika Eskolako eta Kontserbatorioiko hamalau ikasle aukeratu dituzte EIO (Euskadiko Ikasleen Orkestra) eta EIO Gazte orkestretan parte hartzeko.

Durangoko musika eskolako eta kontserbatorioiko ikasleak dira, EIOra aukeratutako sei, eta ikas-tetxe horietako beste zortzi ikasle aukeratu dituzte, bestalde, EIO Gazte Orkestrarako. Azaldu dute-nez, “Durangoko eskola eta kontserbatorioa dira aipaturiko bi orkestretan ikasle gehien izango dituen ikastetxeetako bat”.

Besteak beste, Prokofief, Lauzirika eta Weber-en obrak interpretatuz, hainbat kontzertu eskainiko dituzte musikarigazte durangarrok, datozen hilabeteetan. Apirilean, gainera, Kolonbian zehar bira burutuko du Euskadiko Ikasleen Orkestrak.

Apirilean Kolonbian zehar bira burutuko du Ikasleen Orkestrak

Bilboko eta Gasteizko kontserbatorioetan eta Irungo Amaia antzokian ere kontzertuak eskainiko ditu, bestetik, Euskadiko Ikasleen Orkestra Gazteak.

Laugarren urtez antolatu du Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak hautaketa prozesu hau, Euskadiko Ikasleen Orkestra osatzeko.

EAEko kontserbatorio eta musika eskoletako 18 urtetik beherrako ikasleei zuzenduriko hautaketa prozesua izaten da aipaturikoa, eta EAEko 20 kontserbatorio eta musika eskoletako 250 ikasle aurkeztu dira aurretik. ■ I.E.

DANTZA > LEHIAKETA

Iruñea, Castro eta Valladolidera joan dira sari nagusiak

Joan zen zapatuan, hamalau taldek hartu zuten parte Arriolako Aka Dantz lehiaketaren laugarren edizioan

Iruñeko Class taldeak jaso zuen zapatuko Elorrioko Arriolako dantza lehiaketako Street modalitateko lehenengo saria, eta Castro eta Valladolideko taldeei eman zizkien epaimahai adituak Jazz Funk eta

Iruñeko Class taldeak jaso zuen lehen saria Street modalitatean



Breakdance modalitateetako lau sari nagusiak.

Hamasei taldek eman zuten aurrez Elorrioko Aka Dantz lehiaketan parte hartzeko izena, baina eguraldiagatik talde bik ezin izan zuten Elorriora ailegatu.

Hiru minutuko koreografia bana aurkeztu zuen talde bakoitzak, eta, antolatzaileek azaldu zuten, bete-bete egin zuten Arriola kale dantzen lehiaketa bertatik bertara jarraitzera hurreratu ziren ikusleek.

“Koreografiaren kreatibitatea, musikaren originaltasuna, dantzaren kalitatea eta talde lana” kontuan hartuta banatu zituen epaimahaiak, hiru modalitatetan, 300 euroko lehenengo saria eta 150eko bigarrena.

Zapatuko emanaldi horretan jakinarazi zuten, bestalde, Iruñeko Delirium Tremens, Zaragozako Born Free, eta Bilboko Alehop taldeek irabazi dutela Aka Dantz lehiaketako sari berezia: apirilaren 21eko Bilboko BreakOnStage jaialdian parte hartzea. ■ I.E.

Hiru talde aukeratu zituzten BreakOnStage jaialdian parte hartzeko

Ikusle asko batu zen Arriolan, lehia bertatik bertara jarraitzera

GEURE DURANGALDEA

Miren Amuriza
Bertsolaria



Eperdi bistan

Lehengo batean zur eta lur gelditu ginen La Sexta-ko aurkezle bat euskaraz entzun genuenean. Bat-batean mutil biren solasaldiaren bideoa sartu zuten: “Ni Maitetaz ondo aprobetxatu nintzen, kikia bota nion eta hantxe utzi nuen trapu zahar baten modura” esan zuen batek. “Neskak horretarako daude”, erantzun besteak. Ondoren, neska ilehori bat agertu zen, eta euskara zeharo artifizial batean mintzatzen ziren artean, elkar biluztu zuten. Ikusten ari ginena saioko gustu txarreko esketx bat izango zelakoan, kontuari buelta gehiago eman gabe aldatu genuen katez.

Biharamunean are gehiago harritu nintzen, Internet bidez irudi haien berri jasotzean. Dakizuenez, ondorengo egunetako polemikaren sorburu izan zen bideo hura Leizaola fundazioak egin zuen, Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailaren diru laguntzarekin, eta Vocento taldeko egunkariak beren web-guneetan bideoaren lotura jarri bezain laster zabaldu zen haren oihartzuna. Sortzaileen esanetan, beraien asmoa gazteei euskararekiko grina piztea zen, mezu berritzaile bat helaraziz.

Asmoak asmo, emaitza negargarria izan da. Erotismoa oso modu zabarrean erabiltzeaz gain, karga sexista nabarmena du bideoak, eta pertsonaien hizkera nahiz jarrerak lotsagarriak dira. Pizturiko eztabaidaren ondoren Jaurilaritzak berak ere irudiok kritikatu arren, bai Kultura Saila bai Leizaola fundazioa, bideoaren bukaeran mutilak geratzen diren bezala geratu dira: eperdi bistan.

ZINEMA > EMANALDIK

BERTSOLARITZA >

Zinegoak jaialdiko bi filme, otsailaren 17an, San Agustinen

Egunotan, otsailaren 6tik 12ra arte, Bilbon burutzen diharduten Zinegoak jaialdiaren (gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoen nazioarteko jaialdiaren) bederatzigarren edizioan aurkezturiko lanetariko bi izango dira, otsailaren 17an 20:30ean, San Agustinen ikusgai.

Miriam Ortegak zuzenduriko hamar minutuko iraupeneko *Mikel* laburmetraia, eta Brasilen ekoizturiko *Como esquecer* (*Ezin ahaztu*) eskainiko dituzte Durangoko kulturagunean: Zinegoak jaialdian estreinatuko dituzten filma biak.

Lehendakaritza eta zuzendaritza berriagaz ekin diote Zinegoak jaialdiaren bederatzigarren edizioari, Bilbon: “Munduko zinema jaialdietatik pasatu diren gay-lesbo-trans ikus-entzunezko ekoizpen garrantzitsuenak Bilbora”, Bizkaira, ekartzea du jaialdiak helburu. ■ I.E.

Miriam Ortegaren ‘Mikel’ eta ‘Como esquecer’ Brasil darra

Koipelustre sariketako koplak bertso eskolaren blogean irakurgai

Gogaikarri bertso eskolak urtariraren 27rako antolatu zuen bertso afariaren ondoren egin zuten Abadiñoako bertso eskola horrek antolaturiko lehiaketaren sari banaketa. Eñaut Uruburu abadiñarrak jaso zuen helduen mailako lehenengo saria.

‘blogak.com/gogaikarri’ helbidean daude saritu dituzten koplak irakurgai

Eñaut Urubururen koplek jaso zuten helduen saileko saria

Aitor Servier-Etchechury azkaingarrari eman dio epaimahaiak gazteen mailako saria, eta Txaber Altube abadiñarrari gaztetxoaren mailako lehenengoa.

Oreretako Iñigo Legorburu, Aitor Bizkarra abadiñarra, Ane Peñagarikano zarauztarra, eta Bittor Altube abadiñarra dira II. Koipelustre sariketako beste sari-tuetako batzuk. ■ I.E.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Alejandro Licona antzerkigile mexikarraren testuan oinarrituta Abadiñoko Banarte antzerki taldeak sorturiko obra da *Abuelita de Batman*. Otsailaren 11n, 20:00etan hasita, eskainiko dute abadiñarrek Durangon, joan zen urteko ekainean estreinatu zuten obra.

Antzeztanaren aurkezpen orrian Banarteko kideek azaltzen dutenez, Mexikon "jakina" esateko baliatzen duten esaera da filmari izenburua ematen dion *Abuelita de Batman*.

Bost atal desberdinduko obra da: *Lasaitasuna eta pazientzia*, *Sidarta*, *Orduan izango gara zoriontsuak*, *Diozunagatik ere maite nauzu* eta *Sasoi modernoak* izenekoak dira bost atalak.

Gizartean hedaturiko estereotipoak eta sarritan geure buruak islatuta ikus ditzakegun egoerak azaltzen dituzte antzezlana osatzen duten aipaturiko bost istorio labur horiek.

Eguneroko bizitzako pasadizoei buruzko bost atalek osatzen dute obra

Liconak idatzi zuenetik, Mexikon eta AEBetan egin dituzte bertsioak

Gizartean hedaturiko estereotipoak islatu eta barre eragiteko helburua duen obra

Otsailaren 11n, Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko du Abadiñoko Banarte antzerki taldeak *Abuelita de Batman* lana. "Errealitatearen isla den komedia dibertigarria" da, egileen berbetan, antzezlana

Eva Guerrero bilbotarrak zuzendu du otsailaren 11n Durangoko San Agustin kulturgunean ikusgai izango dugun obra.

Eva Guerrero bilbotarrak zuzendu du Banarte-ren lanik berriena den hau

Besteak beste, Banarte taldeko Bego Garcia, Rafa Herce, Luisa Miguel, Eduardo Pombar, Dolma Romera, Jon Urbano eta Vaneza Rodriguezek hartzen dute sketxetan parte, eta Fernando Borges eta Loli Reñónek burutzen dituzte ekitaldiartekoak.

Liconak idatzi zuenetik, Mexikon eta AEBetan ere *Abuelita de Batman* obraren hainbat bertsio osatu eta eskaini dituzte.

Abadiñon, 2007an sorturiko taldea da Banarte, eta, besteak beste, *Vuelve bigotillo*, *vuelve* antzezlana estreinatu du aurretik Bizkaiko oholtzetan. ■ I.E.



MUSIKA > ELORRION



'Ortzemugak begietan' diskoaren birako azken zuzenekoetako bat

Otsailaren 17an hasita jardungo du Ken Zazpi Elorrioko Arriolan, 22:30ean

Otsailean eskainiko dituzten biak iragarri ditu Ken Zazpi taldeak 2010ean disko berria kaleratu zutenetik burutu duten birako azken kontzertu moduan: Elorrioren otsailaren 17an eskainiko dute kontzertua, eta Zarauzko Polikiroldegian 25ean.

Euskal Herrian grabatu eta Los Angelesen nahastu eta masterizatu zuten diskoa, *Ortzemugak begietan* izenagaz 2010ean kaleratu zutena, aurkeztuko dute, otsailaren

17an, Elorrioko Arriolako kontzertu horretan.

Eñaut Elorrieta gitarra eta ahotsean, Igor Artzanegi baxuan, Beñat Serna gitarran, Jon Fresko baterian eta Iñaki

Amaitutzat emango dute 2010ean kaleratu zuten diskoaren bira

Zabaleta trikitixagaz eta pianoagaz dira diskoaren kantak zuzenean eskaintzera etorriko direnak Durangaldera.

Ken Zazpiren seigarrena den *Ortzemugak begietan* disko horretan Joseba Sarrionandia, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Julen Gabiria eta Uxue Alberdiren kolaborazioagaz egindako kantak bildu zituzten, besteak beste. Aipatuko bost horiek zein taldearen kanta ezagunak izango dira entzungai Elorrioren. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



OTSAILAK 11 17:00etan
DURANGALDEKO
II. SURF JAIALDIA
JAIALDIA. Sarrera doan.



OTSAILAK 15 20:00etan
BERBERTAN
MARTXEO OTAMENDIK JESUS EGIGUREN
ELKARRIZKETAK. Sarrera: doan.



OTSAILAK 17 22:00etan
MIKEL URDANGARIN
KONTZERTUA. Sarrera: 10-12euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



Otsailak 12 • 17:00

San Agustin
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA



artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776



ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA



zuzenean



streaming bidez
anboto.org -en
ikusgai

Otsailak 15 • Eguaztena • 20:00etan • Plateruenean

Martxelo Otamendik Jesus Egiguren

Otsailak 22 • Eguaztena • 20:00etan • Plateruenean

Bingen Zubiriak Josune Ariztondo

Otsailak 29 • Eguaztena • 20:00etan • Plateruenean

Iñaki Sotok Pernando Barrera

@anbotokirola

KIROLAK >

Surf zaleen itsasoan, Kepa Acero lako olatuek bizituko dute Platerueneko jaia

Biharko II. Surf Jaialdiak surf zaleen eta surflari adituen arteko hartu-emanak sustatzeko bilgune izan gura du



Mozorroitu eta goizean zehar Lagara joango dira Durangaldeko surf zaleak, iaz egin zuten moduan. Zutundu

EKITALDIAK

10:00etan: Surfa
Surf saioa Lagan

13:30etan: Poteoa
Durangoko tabernetan

15:00etan: Bazkaria
Plateruena kafe antzokian

17:00etan: Tailerrak
- Salvador Artaza (Alaia)
- Hiucif Rahim (surf taulak)
- Trevol (handplane)
- Sew 'n' Sing
- Alternative Collectiv
- Oficina da hechos

19:00etan: Dokumentalak
- Julen Reentry
- 'El Dorado'
- 'Gastrologging'
- 'La última frontera' (Kepa Acero)
- 'Negu Gordinean' (Manex Aranburu eta Asier Muniain)

21:00etan: Luntxa
'Come hell or high water' dokumentalagaz batera

21:45etan: Zozketa
Errifaren zozketa: Hiucif Rahimek egindako taula

22:00etan: Musika
Loonvagos taldea

Zutundu elkarteak eta Durangaldeko hainbat surflarik otsailaren 11n Plateruenean antolatuko duten jaialdiko protagonista bat Kepa Acero surflaria izango da, eta Patagonian zein Alaskan bizitako esperientziekin osatu duen *La última frontera* dokumentala eskainiko du bertatik bertara.

Iaz hasitako bideari jarraituz, Durangaldeko surflarien bilgunea bihurtzeko asmoz antolatu dute zapatuko jaialdia Plateruena kafe antzokian. Ekitaldiak

goiz-goizetik hasiko dituzte, eta mozorroitu ondoren Lagara joango dira han surf egitera.

Ondoren, 14:00ak aldera, kafe antzokian batuko dira bazkaltzeko. Aurten surfaren inguruko tailerrak antolatu dituzte, 17:00etatik 19:00etara, nobedade legez. Surfeko taula egileak, taulen funda egileak, kamisetak egileak... hainbat espezialistek zelan lan egiten duten ikusteko modua egongo da.

Ondoren, hiru dokumental eskainiko dituzte. Lehenengoan,

Dokumentalak eta euren egileak batuko dira bihar Plateruenean

Surfaren arloko espezialistek tailerrak eskainiko dituzte

Gastrologging izenekoan, kostaldeko hainbat herri ezagutu ahaliko dira, tokian tokiko olatuak eta gastronomia uztartuz.

Ondoren, Kepa Acero surflari algortarraren *La última frontera* lana ikusi ahaliko da. Acero bera ere Plateruenean izango da, bertaratutako en zalantzak argitu eta kuriositateak asetzeko. Acerok Patagonia eta Alaska aldean surfaren inguruan bizitako abenturen testigantzek jarraitzaile asko izan dituzte Interneten.

Amaitzeko, Asier Muniainek Islandia, Galizia eta Euskal Herrian hartutako olatuak ikusgarriekin osatutako dokumentala erakutsiko du. Muniain bera ere etorriko da, "hor nonbait olatu itzelak dabilzala entzun ez badu", dio Txomin Magdalena Zutunduko kideak broman. Guztira 500 bat lagun batzea itxaroten dute.

Aurtengo surf jaialdiagaz amaitzeko, 22:00ak inguruan, Loonvagos taldeak kontzertua eskainiko du. ■ J.Derteano



Surfaren bidez, kultura trukaketa Irlandagaz

Hainbat irlandar gazte etorriko dira apirilean; euskaldunak abuztuan joango dira Irlandara

Durangaldeko Zutundu sup eta surf eskolak eta Irlandako The Surf Project elkarteak kirolaren bidez kultur elkartrukea sustatzeko programa sortu dute. Zutunduko kide Txomin Magdalenak azaldu duenez, "kultura bien arteko zubia izan gura du" *Cross Culture Surf* izeneko ekimenak.

Horrela, apirilaren 7tik 14ra Euskal Herriatik 15 gazte joango dira Irlandara (County Clare herrira); kontrara, abuztuaren 18tik 25era beste hainbeste irlandar gazte etorriko dira Euskal Herriera (Zarautzera).

Ekimena 15 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Otsail osoan zehar *zutundu.com* web gunean izen-ematea hasiko dute. Ekimenen parte hartzeko aukeratuko dituztenetik 5 Durangaldekoa; Gipuzkoa,

Araba, Nafroa, Iparralde eta Bizkaiko gainerako herrietatik bina aukeratuko dituzte.

Ekimena osatzeko Europar Batasuneko laguntza jaso dute, kostuen %60a beteko duena. Beraz, parte hartzaile bakoitzak 400 bat euro ordaindu beharko du. Hala ere, Zutunduko en asmoa ekimena dohainik eskaintzea denez, antolatzaile eta parte hartzaileen arteko batzarretan finantziarioa elkarrekin zelan lortu hausnartuko dute, diru kontuengatik inor joan barik geratu ez dadin.

EKIMENARI BURUZKO HAINBAT DATU

Ekimenaren izena: 'Cross Culture Surf'

Antolatzaileak: Zutundu SUP eta Surf Eskola eta Irlandako The Surf Project

Nori zuzenduta: 15-17 urte bitarteko surfzaleei

Izena emateko webgunea: [zutundu.com / crossculturesurf.com](http://zutundu.com/crossculturesurf.com)

Izena emateko epea: Otsail osoan zehar

Irlandatik Euskal Herriera noiz: Apirilaren 7tik 14ra

Euskal Herriatik Irlandara noiz: Abuztuaren 18tik 25era

Liderren arteko berdinketa apurtu gura du Abadiñok

Abadiñoko Lagun eta Alkideba Saltzaileak taldeek 12 puntuko abantaila dute hurrengoetik; bihar elkarren aurka jardungo dute



Abadiñoko Lagunek argi du asteburuko taktika: defentsa gogorra eta kontraerasoa. Kepa Aginako

Orain sei urte sortu zen Abadiñoko Lagun, eta harrezkero igoera bi lortu ditu. Aurten estreinako denboraldia du goren mailan eta lider dago, Ermuko Alkideba Saltzaileak taldeagaz 40 puntura berdinduta; Presion Break hirugarrena 12 puntura dute. Ematen du euren artean daudela igoera eta promozio postua. Asteburuan elkarren kontra ariko dira Ermuan, eta bipolua euren aldera eramaten saiatuko dira abadiñarrak, igoera zuzena ematen duen lidertza bilatu.

Lehen itzulian, etxean, Lagunek 2-1 menderatu zuen Alkideba eta *averageari* eustea ere garrantzitsua litzateke. Abadiñoko taldeak zortzi garaipen daramatza segidan, eta sasoian

daude, baina Jon Jimenez taldeko kideak "sufrimendua" berba darabil bolada definitzeko, batez ere, izandako lesioengatik: "Sarritan aldaketa bigaz bakarrik ibili gara, jokalariei atsedeen eman ezinik; partidak irabazi ditugu, baina ederto sufrirituz".

Kantxa negargarria

Salatu dutenez, jokalarien ongizatea zaintzeko ez du askorik laguntzen Traña-Matienan entrenatzeko darabilten kantxa berriak ere; jokatu, Berrizen jokatzen dute. Negu partean han egiten duen hotza itzela bada ere, zoru klasea da Jimenez haserretzen duena: "Orpoak txikitu egiten ditu. Taldekide batek orpoan hiru zaintzatu

eduki ditu dagoeneko, aurreko bost urteetan izan ez dituen guztiak. Beste hiru-lau taldekide ere antzeko minekin dabilta". Abadiñoko alkateagaz berba egiteko asmoa iragarri du.

Elorrioko eta Mallabia

Maila bi gorago, Elorrioko Buskantzak eta Mallabia Hierros Servandok derbia jokatuko dute. Elorrioko bolada onean dabil. Mallabia liga hasieran baino apalago ari da, baina joan zen astean Santurtziren kontra lortutako garaipena (6-1) ondo etorriko zaie konfidantza hartzeko.

Bestalde, lehen erregionalean, Sapuberrik igoera postua defendatuko du lurretako Dantxariren kontrako derbian. ■ J.D.

San Blas Trinkete Txapelketaren aurtengo ezaugarri nagusia emozioa da. Lehen maila berezian lehiatzeko etorri diren Iparraldeko bikoteek maila handia dute, aurreneko finalerdian ikusi zenez. Uriartek eta Antxiak azken txanpa itzel baten ondoren lortu zuten finalerako txartela. Bielle eta Dicassouren aurka 30-35 galtzen zihozazela, 10-1eko partziala sartu zieten.

Ikusitakoak ikusita, gaur, 18:30etik aurrera, Mikel Gonzalez berriarrak eta Inhar Ugartek ez dute finalerdi samurragoa, Inchauspek eta Arizmendik (Aspegaz profesional izana) ederto ezagutzen baitute ofizioa.

Finalak domeka honetan jokatuko dira Tornosolon, 12:00etatik aurrera. Lehen mailan Larralde eta Duccassou II.a sailkatuta daude, eta bigarren bikotea gaur irtengo da Barandiaran-Martin eta Gandiaga-Larrazabal lehiatik. ■ J.D.



Finalak domekan 12:00etan jokatuko dira, Tornosolon.

ADITUARENTXOKOA

Iker Saenz de la Cuesta
Areto futbol entrenatzailea



Areto futbola hedabideetan

Telebista piztu eta kirol albisteak ikustera jartzen denak, badaki ez duela eskubaloia, areto futbol edo errugbi albiste askorik ikusiko, eta talde kirol horiek adibide batzuk bakarrik dira. Normaltzat ematen dugu egunero futbolari edo saskibaloari buruz hitz egin behar dutela, ikusle gehienek hori eskatzen dutelako. Askotan beste kirol askotako berriak faltan botatzen ditugu. Horren ordez, Bartzelonaren eta Madrilaren arteko "guden" jarraipenarekin aspertzen gaituzte.

Areto futbolari dagokionez, hobera egin dugu, eta horren eredu da EITBK egindako apustua; areto futboleko lehen mailako partiden emanaldiak eskaintzen ari baitira. Gainera, poliki-poliki areto futbolaren munduko pertsona gehiagori bere iritzia komunikabideetan emateko aukera zabaldu zaio, bai irratian baita aldizkarietan ere, eta hori eskertzekoa da, baina ezin gara horrekin konformatu. Momentu honetan Kroazian areto futboleko Europako Txapelketa jokatzen ari dira, eta telebistetan txapelketa horrekin zerikusia duen ezer gutxi ikusi dezakegu. Baina hor daukagu bilbotar bat, Jose Venancio Lopez espainiar selekziozko gidari eta beste behin Europako txapeldun izateko bidean dena (lerrook idaztean finalaurrekoetan zeuden).

Ez dakit inoiz Durangaldeko areto futboleko entrenatzaile bat kapaz izango den lehen mailako talde batean arrakasta izateko, beste espainiar batzuk egin duten bezala (Jose Venancio Espainian, Luis Fonseca Kuwaiten, Sito Riberan Rumanian edo Jose Maria Pazos Uzbekistanen), baina hori gertatzen bada, espero dut Euskal Herriko komunikabideak horren berri ematea; gustatuko litzaidake haren arrakastaz gozatu ahal izatea.

Duatloian Gorka Uribeetxebarria gogoratuko dute

Mugarra Triatloi Taldeak martxoaren 31n antolatuko duen duatloiak oroimenaren kaxa zabalduko du aurten. Horrela, hainbat urtean Mugarako kide izan eta iaz hil zen Gorka Uribeetxebarriaren oroimenezkoa izango da aurten seigarren aldiz izango duen duatloia.

Mugarak duatloia iragaritzeko sortu duen blogean (durangokoduatloia.blogspot.com) datorrenez, izena emateko epea martxoaren 29ra artekoa da, edo 350 parte-hartzaile izan artekoa. ■ J.D.

Lurreta balentria egitera Elezkano anaien aurka

'Berria' pilota txapelketan lurretako Olaburu klubak Galdakaoren kontra jokatuko du barikuan, 19:00etan Galdakon bertan. Final-laurdenetara sailkatzea benetan gaitz dute. Kadeteetan aukerak dituzte Calleja eta Otadui gazteak; gazteetan Bereinkua eta Elordik aurrelari Danel Elezkano duen bikotearen aurka jokatuko du. Nagusietan Aurtenetxe eta Bilbaok Ander Elezkano aurkituko dute parez pare. ■ J.D.

Ibai Zabala, astebeteetan jokatzeke prest

Atzamar bitan odolaren zirkulazioa falta zitzaiola-eta, 2011ko azaroan ebakuntza egin zioten Ibai Zabala pilotariari. Anbotori adierazi dionez, "asteburu honetan ez, baina hurrengorako bueltatzeko prest" egongo delakoan dago.

Errekuperazioa bide honetik doa. Atzamarrek ez diote aparteko arazorik eman, eta gehien kostatu zaiona eskuak gogortzea izan da, bigunduta zituelako. Orain hiru aste hasi zen pilotagaz lanean Tolosako pilotalekuan. ■ J.D.

Iruren kontra lehiatuko da Elorrio errugbian

Euskal ligako bigarren faseari dagokion bosgarren partida jokatuko du Elorrio-Parra Taberna taldeak zapatuan, 16:00etan, Zaisa Iruren kontra. Elorriok orain arte lau partidatik bat irabazi du, eta sei taldeko multzoan bosgarren postuan dago. Irunek, aldiz, hiru partida jokatu ditu orain arte, eta horietatik bi irabazita, bigarren dago sailkapenean. Univ. Bilbao taldea da multzoko lider nagusitasun handiz, jokatutako denak irabazita. ■ J.D.

Bolantean erakutsi duten trebeziari dagokion saria

Euskadiko eta Bizkaiko automobilgintza federazioen sari banaketa jaialdietan Durangaldeko hainbat pilotu eta kopilotu saritu zituzten

Euskadiko zein Bizkaiko federazioak jaialdi bana egin dute 2011 denboraldian nabarmendutako pilotu eta kopilotuak saritzeko. Tartean Durangaldekoak diren edo Duran-

Aitor Urien prototipoen Espainiako txapelketa izan zen sarituetako bat

galdeko eskuderietan dabilzan hainbat pilotu daude.

Euskadiko Automobilismo Federazioaren jaialdia Zallako Zine Antzokian egin zuten, eta Durangalde Racing Elkarteko

sarituak honako hauek izan ziren: Rallyetan, Axier Kortak gazte mailako kopilotuen saria eskuratu zuen eta Igor Ampudiak lehenengo klasekoa; rallysprintetan, Ander Barainka bigarren klasean saritu zuten; igoe-
retan, Oier Gorrotxategik Formula Libreko hirugarren sailkatuari dagokion garaikurra jaso zuen, eta Rafael Diaz Pulidok, berriz, historikoak saileko txapeldunarena.

Bizkaiko Automobilismo Federazioaren gala Gran Casino Bilbaon gauzatu zen. Han ere ez zen falta izan Durangaldeko



Bizkaiko federazioak antolatutako jaialdia goian, eta Euskadikoa behean.

Kadeteen mailan Espainiako Kros Txapelketan ariko da Bidezabal

Hilaren 18tik 19rako asteburuan, Espainiako Kros Txapelketan lehiatuko dira nesketan Bidazabalgo kadeteak. Bizkaian eta EAEn goi-mailan ibili ondoren lortu dute Oropoesa del Mar-en jokatu den txapelketan lehiatzeko txartela.

Garazi Lekunberri, Izaro Telleria, Ane Pinaga, Nerea Aranburu, Eider Gorritxategi eta Nahikari Legina dira Bidezabalgoko kamiseta defendatzeko aurkeratuak. Aurtengo garaipen zerranda luzea dute kadeteek. Garazi Lekunberrik, esaterako, jokatu dituen proba denak irabazi ditu. Gogoratu beharra dago iazko urrian Kluben Arteko Espainiako Txapelketan ere lehiatu zirela neska kadeteak; lan txukuna egin ondoren zortigarren amaitu zuten. ■ J.D.

Erdi-lanetara berdinduta heldu dira Ibarra eta Abadiño



G.Larrinaga

"Atsedenaldira" bana daude Abadiño eta Ibarra: zortziko txapelketaren erdi-lanetara heldu garenean, Abadiño 680koan nagusitu da eta Ibarra 640koan: txapel bana bakoitzarentzat. Oraindino bigarren zatia falta da -600eko eta 560ko txapelak-, eta indarrak oso parekatuta daude. 600eko finala Berriozarren jokatu dute asteburuan. Talde bien parekotasunaren seinale da joan zen asteburuan Durangon jokatu zen 640ko finala: kitarako hiru tiraldi behar izan zituen Ibarrak Abadiño mendean hartzeko. ■ J.D.

Ampudia, Barainka eta Kortak federazio bien sariak jaso zituzten

kiderik: Igor Urien abadiñar gazteak Prototipoen Espainiako Txapelketari dagokion garaikurra jaso zuen; Iñigo Olabegogaskoetxea pilotuari eta Aketza Santakoloma kopilotuari Espainiako Rally Txapelketako hiru lasterketetan lehiatu izana aintzatesi zieten; German Agreda rallyetan (bigarren klasean) Bizkaiko onena izan da aurtun. Azkenik, Gorka Silva zaldibartarrak rallyetako kopilotuen atalean hirugarren sailkatuari dagokion garaikurra jaso zuen.

Igor Ampudia, Ander Barainka eta Asier Korta, Euskadikoa Automobilismo Federazioaren aldetik ez eze, Bizkaiko Federazioaren aldetik ere sarituak izan ziren. ■ J.D.

Tabirako-Sukia udako eskolan izena emateko epea hasi dute

Ekainaren 25etik uztailaren 6ra Tabirakok udako eskola antolatuko du bosgarrenez, eta dagoeneko hasi dute izen-ematea. 7-14 urte arteko gazteei zuzendutako aurtengo aldia oinarri bitan sustraitu dute. Alde batetik, dibertimendua baztertu barik, goizetan entrenamendu serioagoak egingo dituzte. Bestetik, udako eskoletan erabiliko duten hizkuntza bakarra euskara da.

Plazak mugatuak dira. Izen-ematea hiru modu daude: tabirako@tabirako.com helbidean, 688 646 415 telefonora mezu bat bidalita edo klubeko bulegoan. Datu hauek jakinarazi behar dira: gztetxoen izen-abizenak, jaiotze data, ikastetxea eta kontakturako telefona. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Balmaseda
Domekan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Sondika

Zapatuan, 16:30ean, Eleizalden

GOREN MAILA

Berriz - Otxarkoaga

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

Iurretako - Trapagaran

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Itugarpe

Domekan, 12:45ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Amorebieta

Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

Extremeko - Iurretako B

Zapatuan, 18:15ean, Tabiran

Zaldia B - La Merced

Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko - Mallabia

Zapatuan, 18:00etan, Elorrian

EUSKAL LIGA

Sasikoa - Gollerri

Domekan, 12:00etan, Landakon

LEHENENGO ERREGIONALA

Dantxari - Sapuberri

Zapatuan, 17:00etan, Iurretan

Abadiñoako Gaztetxe - Iturrlondo

Zapatuan, 15:10ean, Elorrian

BIGARREN ERREGIONALA

Gu Lagunak - Biako Gizonak

Zapatuan, 19:00etan, Landakon

Mendibeltz - Freunde B

Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Muskiz

Zapatua, 16:00, Landakon

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA

(emakumeak)

Tabirako - San Ignacio

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONAL MAILA

Tabirako - Salleko

Zapatuan, 16:45ean, Landakon

Anbotopeko - La Salle

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

PILOTA

SAN BLAS TXAPELKETA

(finalerdia)

- Gandiaga-Larrazabal / Barandiaran-Martin

- Gonzalez-Ugarte / Inchauste-Arizmendi

Barikuan, 18:30ean, Tornosolon

SAN BLAS TXAPELKETA

(finalak)

- Larralde-Ducassou

(gaurko irabazleak)

- Uriarte-Antxia /

(gaurko irabazleak)

Domekan, 12:00, Tornosolon

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Durango Ilarduya B - Bera Bera

Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan

AISIALDIA >

gazte gara gazte!

Planeta zaintzeko gazteen ekarpena,
Iurretako Juan Orobiogoitiatik

Ortu ludikoak, Sukarrietarako irteera, Azterkosta egitasmoa... naturagaz lotutako hainbat proiektutan parte hartu dute Juan Orobiogoitiako ikasleek. Gasteizen, *Planeta zaindu dezagun* lemapean egin den CONFINT gazteen konferentzian izan dira berriki, 12 eta 14 urte bitarteko beste 100 gaztegaz

Planeta zaindu dezagun lemapean CONFINT gazteen estatu mailako I. konferentzia antolatu dute Gasteizen. Bertan izan dira Iurretako Iker Blanco eta Emma Villena, Juan Orobiogoitia ikastetxeko gazteak ordezkatzen.

Ingurugiroa zaintzeko gazteek dituzten aukera eta tresnak eduki dituzte berbagai konferentzian. Emmak eta Ikerrek kartel eta esperientzien elkar trukea egin dute Galizia, Katalunia, Madril, Kanariar Uharteak eta EAeko bes-

te gazte batzuekin. 12 eta 14 urte bitarteko 101 gazte batu dira.

Brasilgo Konferentzia

Munduko gazteak etorkizun jasangarri baten alde elkarlanean: lema horregaz laburbildu dute Gasteizko konferentzian landutakoa.

Gasteizkoa 2010ean Brasilian egin zen Gazteen Nazioarteko Konferentziaren haritik antolatu dute. Brasilian gazteek ingurugiroagaz lotutako bederatzi konpromiso adostu zituzten, eta horiek izan dira Gasteizko CONFINT konferentziako oinarriak. Bertan, Bruselan egingo den Europako Konferentziara eroateko ardurak eta konpromisoak adostu dituzte.

Ingurumen balioak

Bederatzi puntutan, hainbat ekin-tza daude Brasilgo Gutunean adostuta. Bosgarren puntuak horrela dio: "Ingurumena zaindu eta gazteei horren informazioa ematea, berarekiko errespetua exijituz".

Zazpigarren puntuari jarraituta, gazteek kontsumo egokia sustatzeko konpromisoa hartzen dute. Horretara bidean, besteak beste, kontsumitzen denaz hausnartzea, kontsumoa murriztea, berrerabilpena eta birziklapena sustatzea adostu dute.

Bosgarren eta zazpigarren ardura horiek aipatzen ditugu, eurak aukeratu dituztelako Iurretako ikasleek, ikastetxean landu eta kartelak egin eta gero konferentziara eramateko.

Informazioa zabaltzea

Brasilgo Gutunaren berezitasun bat inguruan informazioa zabaltzeko konpromisoa da. Iurretako ikasleen karteletan, besteak beste, kostaldea aztertzeko Azterkosta programari buruzko informazioa, Iurretako Ortu Ludikoen gainekoa, parke naturalera egindako irteerak eta Sukarrietan egindako egonaldia ipini dituzte. Ekin-tza horien guztien berri ikastetxeko blogean ematen dute ikasleek.

Naturagaz lotutako 9
ardura batzen dituen
Brasilgo Gutuna
eduki dute oinarri

Konferentziara
ikasgelan
prestatutako
materiala eroan dute

Bruselan egingo den
nazioarteko
konferentzia
prestatu dute
Gasteizen



laguntzaileak



Jatetxe gida



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo katering. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	
Saldu / Erosi Errentan eman / Errentan hartu Lan eskariak / Lan eskaintzak Galdu / Aurkitu Eman / Hartu		

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

Bolibar. Etxe zaharra salgai bolibarren. 34 m2 x 3. Teilatu berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m2ko terraza. 150.000 euro. 660 35 80 67

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du. Berogailua. Berritzatua eta altzairuz hornitua. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 200 m2-ko txaleta. Sukaldea, 2 egongela, 4 logela, 3 bainugela, trastelekua. Altzairuz hornitua. Bero-gailua,zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m2-ko terrenoa. 900.000 euro (negoziagariak). Tel.: 615-70 12 23.

Berriz. Herri erdian.71 m2: egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta ganbara. Bi horma-armairu, berriztua eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. Tel.: 679-86 17 30.

Berriz. Herri erdian. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki bategaz). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. Tel.: 607-52 24 26.

Durango. Muruetorren. 90 m2. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun. Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. Tel.: 686-13 89 09.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz betea, berogailuaren galdarajarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, atek eta zorua alduta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Elorrio. Zentrikoa den 90 m2-ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, garaje partzela eta trastelekua. Tel.: 657-79 39 38.

Elorrio. 76 m2-ko etxe berria. Erdigunean. Sukalde ekipatua, 2 logela, 2 komun eta 10 m2-ko trastelekua. Garajea aukeran. Prezioa: 38 milioi. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Estreinatzearen dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Tel.: 615-75 59 85 (goizez) 636-22 49 02 (arratsaldez).

Gasteiz. 57 m2. Egoera onean. Kalefakzioa eta ura elektrikoak. Hegoaldera begira. 1. solairua, igogailua. 2 logela, 2 komun, sukalde ekipatua, balkoia. Moketa eta parketa. Garajea itxia. Pizsina. Altzari-ekin. Tel.: 665757807. marian.formigal@gmail.com

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin. 78.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. 675-71 72 83.

Zaldibia. 81 m2. 3 logela, 2 komun, 3 armairu enpotratu, sala, sukaldea eta terraza ederra. Garaje itxia. 199.000 euro. Tel.: 626-62 37 92.

EROSI

Durungaldea. Baserri bifamiliar osoa erreformatzen ditzut, baserri erdiaren truke. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. Tel.: 618-93 62 14.

ERRENTAN EMAN

Atxondo. Pisua alokagai. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Tel.: 680-42 77 02

Elorrio. Pisua alokagai herri-gunean. 3 logela, 2 bainugela. Trastelekua. Amueblatua. 600 euro hilean. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Banako etxea alokagai. 125 m2-ko etxea, 100 m2-ko sotoa eta 100 m2-ko aterpea. 2.500 m2-ko lursaila. Tel.: 616-936 351. Manu.

Elorrio. 50 m2-ko pisua, altzariekin. Tel.: 618-10 92 09.

Iurreta. Gelak alokatzen dira Maspe kalean. 687-58 66 37

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Alokatzeko pisu bila. Altzariekin. 94-658 21 91.

PISUA KONPARTITU PISU BILA

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo Iurretan. Deitu lasai. Tel.: 658-42 86 12 edo 658-71 16 42 (Malick/Iñaki).

PISUKIDE BILA

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeo eta leku paregabea. Aukeran, nahiago emakumea. Tel.: 619-66 58 57.

Durango. Logela alokagai 3 logelako pisu batean. Emakumea nahiago. 600-45 83 16.

Durango. Logela alokagai. Tel.: 630-76 18 28.

LOKALAK
Elorrio. 170 m2-ko lokala alokagai edo salgai. Oso toki onean, erdialdean. Eskaparatetik handiak. Edozein negozio-rako aproposa. Tel.: 94-658 21 01 (dendako ordutegian).

GARAJEAK SALDU

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m2. Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, jaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. Tel.: 615-75 21 36.

Berriz. Learreta-markina kalean. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m2. Tel.: 663-39 75 88.

Durango. Montorretan, simply supermerkatuaren ondoan. 2 lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. Tel.: 652-76 81 31.

Elorrio. Garaje itxia erdialdean, 20.000 euro. Tel.: 660-45 87 56.

Otxandio. Garaje itxia salgai, pertsianarekin. Tel.: 675-71 72 83.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Legaño auzoan. Handia eta toki lasaian. 25 m2. Kotxea zein beste hainbat gauza sartzeko. Tel.: 663-39 75 88.

Durango. Kotxe partzela alokagai Askatasun etorbidea 11n. Tel.: 94-681 39 32.

Durango. Garaje itxia Sasi-koan. 75 euro. 688-80 70 92

Otxandio. Garaje itxia alokatzen da. Tel.: 675-71 72 83

LURSAILAK
Abadiño. Lursaila salgai matienan, arzubian, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa orturako. Fruitu arbolak. Matiena ondoan. Tel.: 658-75 65 12.

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin. Gasteizetik 40km-tara. 308m2 eraikitzea posible da. Inguruan beste lursail eta etxebizitza; baita golfeko hotela . Tel.: 665757807 (ana)

Teknologia
GAINERAKOAK
Bidali zure ordenagailua boliviara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez baiduko dugu boliviako bigarren mailako eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana/negozioak LAN ESKARIAK ETXEKO LANAK

Durango. Bulegoen, etxeen, portalen... garbiketerako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. Tel.: 676-54 66 91 (Lola).

Durango. Durangoko emakumea orduka etxeko lanak egiteko prest, informeeekin. 94466 89 26/688 65 90 90

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketa lanetarako. Orduka, asteburuetan edota gauzez ere. Erreferentzia eta esperientziarekin. 679-71 64 42

Durungaldea. Neska euskalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Tel.:628243602

